

5. IRABAZI-ITURRIAK

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko ezinbestekoa izango da diru-iturri bat edukitzea. Hau lortzeko hainbat erakunderekin kontaktuan jarri gara zein finantza mota eskaintzen duten jakiteko eta inbertsio horiek eskuratu ahal izateko. Honako hauek izango dira erakundeak: udaletxea, bankuak, Gaztenpresa fundazioa (Laboral Kutxa I), Eusko Jaurlaritza, Lanbide, Tolosaldea Garatzen (ekintzaile bakoitzari enpresa-ideiaren, arriskuen, aukeren, jarraitu beharreko urratsen, finantzaketaren, kokapenaren eta abarren azterketa orokorra egiten laguntzen du.), Goieki (negozio-ideia bat eta enpresa-proiektua gauzatzen laguntzen du, proiektu hori garatzeko fase guztietan laguntza eta aholkuak emanez.) eta Konfekoop (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa).

Bestetik proiektua jada sortutakoan irabazi-iturri batzuk edukiko ditugu. Guk eskainiko dugun zerbitzua lehenengo 10 egunetan dohainik izango da, ondoren gure bezeroek menuak jaso ahal izateko kuota bat ordaindu beharko dute **hilabetero**. Beraz, gure zerbitzuaren **prezioa finkoa** izango da.

Esan bezala, gure oinarrizko diru-iturria bezeroek hilabetero ordainduko duten kuota izango da, eta horretaz gain, merkatuko baserritarrei eta denda ekologikoei publizitatea egiteagatik lortuko duguna.

Laburbilduz gure irabazi-iturrien sailkapena honakoa da:

IRABAZI-ITURRIAK	PORTZENTAJEA
Publizitatea	%5
Kuotak	%95